

BANDOA

LAN ESKAINTZA GARBIKETAKO LANGILEAK MAÑERUKO IGERILEKUAN

ITZIAR MARTÍNEZ ARBELOA, MAÑERUKO UDALEKO ALKATEA (Nafarroa):

JAKINARAZTEN DU:

Udal honetan aldi baterako eta lanaldi partzialeko **garbiketako plaza BAT (1) (hiru hilabete iraungo duena)** (lanaldi erdia, gutxi gorabehera, ekainaren 09 eta irailaren 09 bitartean) kontratatuko dela, lan-eskaintzan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

BETEKIZUNAK

- Nafarroako Enplegu Zerbitzuan **“garbiketako peoi”** gisa izena emanda egotea Mañeru eta Cirauqui/Zirauki udalerrietan, aurtengo maiatzaren 23a baino lehen.

KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE IRIZPIDE BATZUK:

- Martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenaren eranskinaren hirugarren oinarrian adierazitako kolektiboen kontratazioari emango zaio lehentasuna, bai eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 10eko 458E/2024 Ebazpenean egin den aldaketari ere. Ebazpen horren bidez, Nafarroako toki-entitateei interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik eman beharreko dirulaguntzak arautzen dira, ageri diren ordena berean.
- Goian aipatutako kolektibo bakoitzaren barruan, kontuan hartuko da Nafarroako Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dagoen antzinatasun handiena.

LAN ORDUTEGIA

- Lanaldi partziala, goizez, asteazkenetik igandera, 8etatik 12etara.

Interesatuek maiatzaren 31ko 14:00ak arte eman dezakete izena, *kurrikulum vitae*-a aurkeztuz Mañeruko Udalaren eta Ziraukiko Udalaren bulegoetan.

Aditzera ematen da orok jakin dezan.

Mañerun, 2024ko maiatzaren 9an

Alkatea,



Itziar Martínez Arbeloa